



IBAR EZKERRA
IKASTOLA

- ARTIKULUAK
- LAN ESKAINTZAK
- IKASTAROAK



EDUKIA:

LAN 2
ESKAINZAK

Infoempleo

Tecnoempleo

Lanbide

Beste batzuk

IKASTAROAK 3

Inem

Lanbide

Hobetz eta
Diputazioa

IBAR 4
EZKERRA

Gailuen/Tresnen bateriei nola luzaroago iraurarazi:

Beti entxufeen mende ez egoteko

Edozein gailu eramangarriren autonomia handitzeko, aski da neurri batzuk hartzea programak eta periferikoak erabiltzerakoan eta harigabeko konexioak egiterakoan

Teknologia eta mugikortasuna elkarri lotuta doaz. Sakelako telefonoak ordenagailu dira gero eta gehiago, eta ordenagailuak, berriz, telefono izan gabe ere, gero eta sakelakoago dira, eta erraz eraman litezke noranahi. Elkarrengana hurbiltzen ari dira biak, eta tresna bakar bihurtzeko bidean daudela dirudi, nagusiki mugikortasunaren dohaina izango duen tresna. Mugak ere badira, ordea, eta nagusia, gailuen autonomia. Baterietan metatzen da gailuen energia, edo piletan bestela. Kable bidez kargatzen dira bateriak, eta beharrezkoa da, beraz, energia iturri bat gertu edukitzea bateria ahitzen denean. Mugikortasuna ez dela erabatekoa, alegia. Entxufeak behar dira inguruan, nahitaez. Mendekotasun edo lotura hori zertxobait arindu liteke, hala ere. Bada modurik bateriei luzaroago iraurarazteko, eta, beraz, "bateria gutxi" edo antzeko mezuren bat agertzean larritu egiten bagara, neurri erraz-errazak har ditzakegu bateria alferrik ez zamatzeke.

Adi pantailari

Sakelako telefonoen bateriak, asko erabiliz gero, 48 ordu baino gutxiago irauten du, eta, horregatik, eroatera joan aurretik, ongi pentsatu behar dira gauza batzuk; besteak beste, ea ukipen-pantaila nahi dugun edo ez. Halako pantailak, izan ere, etengabe daude elkarreraginean erabiltzailearekin, eta denbora luzez egon behar izaten dute aktibatuta. Tresna edozein dela ere, energia asko kontsumitzen du pantailak, eta hura piztuta dagoela, bateria azkar husten da, argia emateko ez ezik, irudiak eta marrazkiak erakusteko ere energia ugari behar izaten baita.

Gainera, ukiturik txikiena aski izaten da telefono mota horren pantaila abiarazteko, eta sakelan daramagula, oso erraza izaten da zerbaitekin ukitzea, eta kolpetxo bakoitzean, nahigabe abiarazten dira telefonoaren funtzioak. Horrek ondorio jakina izaten du: energia asko xahutzen da, baita telefonoa blokeatuta dagoenean ere. Ez da komeni pantailan argazkirik jartzea, eta egiten bada, zuri-beltzekoa izan dadila.

Berdin gertatzen da ordenagailu eramangarriekin: abiarazten direnean, pantailek energia asko behar izaten dute. Distira doitzea komeni izaten da: entxuferik gabe lan eginez gero, distira ahal den guztia jaitzi behar zaio pantailari (ikusteko moduan egon behar du, jakina). Bereizmena gutxitzea ere lagungarria izaten da. Sakelakoetan bezala, ez jarri argazkirik mahaigainean, eta are gutxiago koloreetakoak. Neurri horiek hartuta, % 30 handitu liteke ordenagailuaren autonomia.

Ordenagailuaren bateria ongi zaindu

Erabiltzaile askok ez diote jaramonik egiten, baina bateria ongi zaintzea funtsezkoa izaten da autonomia handia eman dezan. Bateria gaizki zainduz gero, haren gaitasuna erdira etor liteke sei hilabeteren buruan. Erabiltzen hasten garenean, bateria guztiz kargatzea eta hustea komeni izaten da; hau da, ahitu arte aritzea lanean, eta gero erabat kargatzea, bai ordenagailuetan eta bai eramangarrietan. Era horretan, ahal duen energia guztia kargatzera ohituko da.

Beste hainbat neurriren artean, garrantzitsua izaten da pilak leku freskoan gordetzea, hozkailuan ahal dela, beroak erreakzio kimikoak eragiten baititu pilaren barrenean, eta haren gaitasuna aldatu. Bateria batek zenbat eta bero gehiago eduki, orduan eta azkarrago hondatuko da; hori dela eta, behin kargatu dugunean eta entxufearekin lan egiteko asmoa badugu, ez da komeni ordenagailu barrenean uztea, prozesagailuak bero handia ematen baitu. Bestalde, garrantzitsua izaten da ongi garbituta edukitzea metalezko konektagailuak, bestela erresistentziak sor litezke energia-fluxuarentzat, eta horrek berotu egiten ditu pilak eta txartu.

LAN ESKAINTZAK



“Aurrera
begiraten ez
duena atzean
dago”

“Balantza duen
aldera erortzen
da arbola”



infoempleo.com

LANPOSTUA

Diseñador Web

ENPRESA

DESER STUDIO

tecnoempleo.com

LANPOSTUA

Técnico atención usuario (helpdesk)
Desarrollador Contenidos Web
Diseñador Web
Técnico informático
Técnico Helpdesk
Administrador bases de datos
Responsable Soporte Web
Diseño Web
Técnico informático
Programador aplicaciones web Php
Programador Web (php, Mysql)
Técnico Servicio At.Cliente
Técnico informático

ENPRESA

Ibermática Erandio
Contemática, S.L.
Contemática, S.L.
Sermicro, del. Norte
Thales España (Bilbao)
Insa
Contemática, S.L.
F2 informática
Sermalogic
ZYLK.net
Grupo Atolon
IProNet Sistemas
Informática Serinfor

lanbide.net

Ref:	Lanpostua	Lekua
162010000288	PROFESOR/A PILATES	BARAKALDO
162010000248	PROGRAMADOR WEB	ABADIÑO

Beste eskaintza batzuk

GUEDAN SERVICIOS DEPORTIVOS, S.A. Tel: 94 439 80 10. www.guedan.com
(2010/01/17 eta 2010/01/31ko El Correo aldizkarian)

- Socorristas acuáticos, monitores de natación.

GESTFOREM: Tel: 900 720 494 (2010/01/17 El Correo aldizkarian)

- Monitores deportivos, Musculación

GRUPO EULEN seleccionbilbao@eulen.com
(2010/01/24ko El Correo aldizkarian)

- Monitores deportivos: Tenis, Fitness, Spinning, Pilates, Yoga,
Tonificación, Estilos (Aerobic, GAP,...)


PROGRAMADOR ASP y/o .NET empleo@agpsoftware.com
(2010/01/10eko El Correo aldizkarian)



Lanbide.net

Kodea	Ikastaroa	Lekua	Data eta orduak
8256	Diseño de páginas web	Ifes	2010/02/15
69510	Desarrollo de aplicaciones Web	Col. Zabalburu	2010/02/08. 40 ordu.
69428	Redes de área local	Polit. Txorierri	2010/03/01. 50 ordu.
69537	Animación y multimedia en la red	Col. Zabalburu	2010/04/12. 60 ordu.
69536	Prog. Orientada a objetos (JAVA)	Col. Zabalburu	2010/04/12. 80 ordu.
68776	Prog. En lenguajes estructurados	Elorrieta Erreka-	2010/04/19. 70 ordu.
68637	Redes de área local (LAN)	Tartanga GLHBI	2010/02/22. 50 ordu.
68826	Inglés nivel iii: english level upper-	Ibaiondo	2010/03/10. 60 ordu.
68982	Lenguaje de programación Visual Basic	Polit. Txorierri	2010/03/15. 45 ordu.

IKASTAROAK





IBAR EZKERRA IKASTOLA

Alonso Allende multzoa z/g
48920 PORTUGALETE
BIZKAIA

Tel: 94 472 43 66

Fax: 94 472 17 31



www.ibarezkerra.net

IBAR EZKERRA Ikastola Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendutako **enplegu eta Lanbide Heziketako zentroa** da. Nerbio ibaiaren ezker aldeko Portugalete udalerrian 2001 – 2002 ikasturtean abian jarri zen.

IBAR EZKERRA Ikastola Kooperatiba Elkarte da. Irabazi asmorik gabekoa eta bere sustatzaileak ikastolak izan dira.

Ikastolaren inguruko eginkizuna lanbide heziketa-eskaintza kudeatzea da enpleguari begira eta hasierako edo berariazko formakuntza kalitatekoa aukeratu duten ikasle euskaldunen eskari eta espektatibak betetzeko gauza dena. Halaber, lanbide heziketaren gainontzeko azpisistemetan (etengabeko eta lanerako formakuntzetan) euskararen erabilera sustatu nahi du.

IBAR EZKERRA Ikastolak Bizkaiko Ikastolen Elkarte – Par-taide eta Euskadiko Kutzaren laguntza eta onespena dauka.

IBAR EZKERRA Ikastolak ematen dituen hezkuntza zerbitzuetan, ISO 9001:2000 kalitatearen aseguramenduaren ziurtagiria lortu zuen 2004an. Gaur egun, erabateko kalitatearen eredurantz abiatzen da.

Bideokamera digitalak:

Txikitzen, txikitzen...



Bideokamera digital berriak gero eta osatuagoak dira teknikioki eta gero eta txikiagoak neurritz Bideokamerak aski tresna onak dira gure bizitzaren zati bat harrapatzeko, eta egungoak, gainera, gero eta merkeago eros litezke (neurrian ere behera eta behera doaz). Argazki kamera digitalekin batera, ezin egokiagoak dira bidaietara eramateko, familiako ekitaldietara eta laneko zereginetara. Kamera konpaktu bat baino zertxobait handiagoak dira, arinak eta eramangarriak, eta teknologia aldetik goi mailara iritsi dira. Azken belaunaldiko telebista laueta ikusteko, adibidez, bereizmen handi-handiko irudiak hartzen dituzte, eta horrexegatik hedatu dira hainbeste jendearen artean.

Dohain horiez gain, beste batzuk ere badituzte belaunaldi berriko kamera horiek. Prezioa, esaterako. Egun, 250 euroekin eros liteke era horretako kamera bat, eta hortik gora, 1.500 eurorainokoak ere badira. Irudi grabatuaren kalitatean egon ohi da alderik handiena kameratik kamerara (zenbat eta garestiagoa, orduan eta kalitate hobea), eta irudiak gordetzeko sistemak ere badu zeresana, jakina.

Bideokamera hautatzeko irizpide nagusiak

Ohiko erabiltzaile batek, kalitatezko irudiak bai baina emaitza artistiko edo profesionalak bilatzen ez dituen batek, oreka bilatu behar du kamera hautatzerakoan: erabilgarria izan behar du eta aukera egokiz hornitua egon behar du. Irudiak grabatzerakoan eta editatzerakoan funtzionala izatea komeni da. Aukerei dagokienez, berriz, ikusi egin behar da zer den beharrezkoa eta zer osagarria. Alderdi horiek aintzat hartuta erabaki behar da zenbat ordaintzea merezi duen.